

Atentatua gaitzesteko eta ETaren kontra ehunka lagun kontzentratu ziren Gasteizen

Ibarretxeren dimisioa eskatu eta Arzalluzen eta HBren kontrako oihuak egin zituzten

Agentziak / Gasteiz

Fernando Buesaren eta Jorge Diez ertzainaren hilketak gaitzesteko lehenengo mobilizazioa atzo iluntzean egin zen Gasteizen. Ehunka lagun kontzentratu ziren Korreo plazan, buruan PSE-EEko buruzagiak zeudela. Ibarretxeren dimisioa eskatzen zuten oihuak egin zituzten, eta baita Arzalluzen eta HBren kontra-koak ere.

KONTZENTRAZIOA PSE-EEk deitu zuen, baina beste hainbat alderdi politikotako ordezkari eta Madrilgo zenbait agintari ere han izan ziren. Buruan PSE-EEko Nicolas Redondo Terreros, Rosa Diez, Javier Rojo, Luis Alberto Agiriano eta Ramon Jauregi zeuden, bakea zioten pankartatxoak zeramatzate-la. Haien ondoan jarri ziren Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroa, Federico Trillo Kongresuko presidentea, eta Santiago Lopez Valdivielso Guardia Zibileko zuzendaria. EAJko Araba Buru Batzarreko presidente Jose Maria Gerenabarrena izan zen; UAko Pablo Mosquera; Confebaskeko Roman Knörr; Pello Salaburu EHuko jarduneko errektorea; eta Xabier Markiegi arartekoa.

Haiekin batera ehunka lagun bildu ziren, eta ETaren



MIREN SAEZ

PSE-EEko Javier Rojo, Rosa Diez eta Jose Maria Benegas, atzo Gasteizko kontzentrazioan.

kontrako oihuak ez ezik ondorengoak ere egin zituzten: Non dira HBko faszistak?, Arzalluz non zaude?, Ibarretxe dimititu...

Kontzentrazioaren ondoren, 300 lagun inguru bildu ziren Lehendakariatzako atarian Ibarretxe lehendakariaren dimisioa eskatzeko.

Manifestaldia eta bilkura Iruñean

Nafarroako Bozeramaileen Mahaiak EHren abstentziare-

kin, atzo egin premiazko bilkuran bost puntuko gaitzespen idatzia onartu zuen, non «gogor» salatu zituen bi hilketak. Bestalde, gaur egitekoa den Parlamentuko plenoko gai bakarra «atentatuaren salaketa» izanen da, eta gero bertan behera geratuko da bilkura, 12:00etan kontzentrazioa egiteko Foru Erkidegoko Parlamenturaren egoitzaren aurrean. Larunbatean, berriz, arratsaldeko 17:00etan manifestazioa antolatu du Parlamentuak

hilketak «deitoretu eta irmoki gaitzesteko».

Bestalde, herrialdeko Kontzeju eta Udalerrien Federazioak elagarretaratzeak deitu ditu gaurko Nafarroako herrietako plazetan.

Gasteizen ere Bozeramaileen Batzordea bildu zen atentatuaren kontrako idatzi bat prestatzeko, gaurko osoko bilkuran onartuko dena. Gainera, Fernando Buesaren hilkapera Legebiltzarreko egoitzan jartzea erabaki zuten atzoko bileran.

Aznar: «Adostasun politikoak ez dira bateragarriak hilketarekin edo haren justifikazioarekin»

Agentziak / Madril

«ERANTZUN garbiak eta zehatzak» eskatu zituen Jose Maria Aznarrek, Espainiako Gobernuako presidentea, atentatuaren ondoren eginitako adierazpen instituzionalan. «Hiltzen dutenekin dauden eta hildakoeekin dauden artean bereizi behar dugu, eta bide horretan erantzuteko eskatzen dute herritarrek», esan zuen.

EAJri aipamen zuzenagoa eginez, zera adierazi zuen Aznarrek: «Ez dago erdizka

ibiltzerik. Adostasun politikoak ez dira bateragarriak hilketarekin edo haren justifikazioarekin, eta denok bakearen aldeko konpromisoa hartzea da biktimei egin ahal diegun omenaldi onena».

Fernando Buesaren eta Jorge Diezen senideei elkartasuna azaldu zien, eta biek komunean «askatasunen defentsa eta bake nahia» zutela esan zuen. PSOERI gainera, Gobernuaren elkartasuna azaldu zion.

Gobernuko bozeramaile Josep Piquek, bestalde, atentatua gaitzetsi eta elkartasuna agertu zien Fernando Buesaren eta Jorge Diezen senideei, eta baita PSE-EEri eta Ertzaintzari ere. Gainera, Piquek adierazi zuen ETak ez dituela «inoiz bere helburuak indarkeriaren bidez lortuko».

Jaime Mayor Oreja, Barne ministroa, Gasteiza etorri zen Benidormetik (Alacant) atentatuaren berri izan zuenean. Abiatu aurretik esan

zuenez, «krudelkeria izugarriaz jokatzen du ETak, eta batzuei eta besteei min egiteko aukeratzeko dituzte bere biktimak».

Haserre agertu zuen atentatua dela eta, «bereziki Buesaren familiarekiko dudak hurbiltasunagatik, Eusko Legebiltzarrean lan ordu asko izan nituelako». Mayor Orejak esan zuenez, inoiz baino beharrezkoagoa da «espainiar guztiengan eta instituzio guztietan konfiantza izatea».

EHUk dolu eguna izango du gaur eta bertan behera utzi du errektore berria aukeratzeko klaustroa

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) dolu eguna izendatu du gaurkoa Fernando Buesa eta Jorge Diezen hilketak salatze eta ondorioz, bertan behera utzi du errektore berria aukeratzeko gaur Leioan egitekoa zen klaustroa. Era berean, aktibitate akademiko guztiak bertan behera uztea erabaki du EHUk eta bertako partaideei atentatua gaitzesteko egingo diren bilkuretara joateko deia egin die. Gogoratu behar denez, Fernando Buesa sozialista Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu izan zen.

Bakearen Aldeko Koordinakundeak bilkuretara deitu du gaur Hego Euskal Herrian

Bakearen Aldeko Koordinakundeak «gaitzespenik gogorrena» azaldu zuen atzo Fernando Buesa buruzgi sozialistaren eta Jorge Diez ertzainaren hilketengatik. Dei egin zien herritarrei gaur antolatu dituen gaitzespen bilkuretan esku hartzeko. Alde batetik, hamabost minutuko bilkurak egingo dira Nafarroako bi unibertsitateetan eguerdiko hamabietan. Bestetik, arratsaldeko zortzietatik aurrera ere bilkurak egingo dira Hego Euskal Herriko ohiko lekuetan.

Denon Artean-ek, Intolentziaren Aurkako Mugimenduak eta Terrorismoaren Biktimen Elkarteak biltzera deitu dute gaur Donostian

Denon Artean-ek, Intolerantziaren Aurkako Mugimenduak eta Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT) kontzentrazioa egingo dute gaur arratsaldeko zortzietan Donostiako Gipuzkoa enparantzan, Fernando Buesa eta Jorge Diezen hilketengatik protestatzeko. Atzo kaleratutako komunikatu batean, hilketak gogor gaitzesteaz gain, terrorismoaren aurkako «apustu garbi eta tinkoa» eskatu zieten euskal instituzioei.